



2007ko urriak 25 osteguna
209 Zenbakia

Jueves 25 de octubre de 2007
Número 209

LABURPENA — SUMARIO

	<u>Orrialdea</u>		<u>Página</u>		
4	Gipuzkoako Lurralde Historikoko Administrazioa.....	28.487	4	Administración del T.H. de Gipuzkoa.....	28.487
6	Autonomia Erkidegoko Administrazioa.....	28.504	6	Administración de la Comunidad Autónoma	28.504
7	Udal Administrazioa.....	28.507	7	Administración Municipal	28.507
9	Iragarkiak	28.602	9	Anuncios.....	28.602

4

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA ADMINISTRACION DEL TERRITORIO HISTORICO DE GIPUZKOA

4

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

LABURPENA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2007ko irailaren 4ko bileran hartutako erabakien laburpena, 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 69 eta 72 artikuluetan erabakitakoari jarraituz bestelako xedapen eta ebazpenak argitaratzea alde batera utzi gabe:

— Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkari izendatzea Ekain Fundazioaren Patronatuan.

— Baimentzea eta esleitzea Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko Informatika Unitatean trataera dokumentaleko zerbitzuen kontratazioa

— Baimentzea eta esleitzea Gipuzkoako Foru Aldundiari zerga inprimakiak hornitzeko kontratazioa.

— Onartzea ondasun higiezin hiritarretako lurzorua eraikekin balio ponentzien aldatzea, udalerrri hauei dagokienez: Aduna, Albiztur, Asteasu, Azkoitia, Azpeitia, Beasain, Zizurkil, Eibar, Hernani, Irun, Lizartza, Arrasate-Mondragón, Mutriku, Oñate, Ormaiztegi, Oiartzun, Donostia-San Sebastián, Segura, Tolosa, Bergara, eta Villabona.

DIPUTACION FORAL DE GIPUZKOA

EXTRACTO

De los acuerdos adoptados por el Consejo de Diputados de la Excma. Diputación Foral de Gipuzkoa, en sesión del 4 de setiembre de 2007 sin perjuicio de la publicación de otras disposiciones y resoluciones conforme a lo que disponen los artículos 69 y 72 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa:

— Designar representantes de esta Diputación Foral en el Patronato de la Fundación Ekain Fundazioa.

— Autorizar y licitar la contratación del servicio de tratamiento documental en la Unidad Informática del Departamento de Hacienda y Finanzas.

— Autorizar y licitar la contratación del suministro de impresos tributarios a esta Diputación Foral de Gipuzkoa.

— Aprobar la modificación de las Ponencias de los valores del suelo y de las construcciones de los bienes inmuebles de naturaleza urbana correspondientes a los municipios de Aduna, Albiztur, Asteasu, Azkoitia, Azpeitia, Beasain, Zizurkil, Eibar, Hernani, Irun, Lizartza, Arrasate-Mondragón, Mutriku, Oñate, Ormaiztegi, Oiartzun, Donostia-San Sebastián, Segura, Tolosa, Bergara, y Villabona.

— Onartzea jarraibide ekonomikoak, jarraibide teknikoak eta 2008ko Aurrekontuen Proiektua prestatzeko egutegia.

— Jasota uztea N-634 errepidearen Eibarko saihebidearen 3. fasea egiteko Proiektua Idazteko Laguntza kontratuaren obren harrera.

— Onartzea GI-131 errepidearen Astigarragako Zeharbidetan zorua Birgaitzeko Proiektuaren obren harrera.

— Jasota uztea GI-3710 errepideko 0,150 eta 6,455 k.p.en arteko bidezoruaren egitura zaharberritzeko Proiektuaren obren harrera.

— Onartzea Bergaran, Elgetako lotuneko GI-627-46-1 bideadarrean, Amillagako biribilgunea egiteko Proiektua.

— Jasota uzta GI-632 errepideko 0,465 eta 0,535 k.p.en artean dagoen lurrerauzketa ezpona egonkortzeko Proiektuaren (2-ME-21/2006) obren harrera.

— Gordailuen Kutxa Orokorrean sartzea hirurehun eta hirurogei mila euro (360.000,00 €), zehaztuko den balio justuaren zenbatekoaren kontura, N-121-A errepidea Laskuaingo biribilgunetik (Behobia) Enderlatsaraino (Nafarroako Muga) zabaldu eta hobetzeko Proiektuak atxikitako ondasun eta esku-bideen zerrendako 73 zk. finkarengatik.

— Baimentzea 131.997,68 € GI-131 errepidearen Andoaingo saihebideta egiteko proiektuak atxikitako ondasun eta eskubi-deen zerrendako 24 zk. finkaren balio justuaren likidazio gisa

— Onartzea Belauntzarako ur horniduraren Proiektua.

— Onartzea Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Arrasateko Udalak sinatuko duten lankidetzaren hitzarmena, San Josepeko harrobiaren etorkizuna argitzeko ideien lehiaketa egiteko.

— Onartzea Gipuzkoako Foru Aldundiak, Tolosaldea Garatzen, SAK eta Adunako, Anoetako Asteasuko, Irurako, Villabonako eta Zizurkilgo udalek sinatuko duten lankidetzaren hitzarmena, udalerririk horien Tokiko Ekintza Planen jarraipena egiteko, eta horiek dinamizatzeko eta berrikusteko.

— Baimentzea Zizurkilen Fraisoroko aparkaleku berria eta sarbidea hobetzeko Proiektua aldatzeko espedienteari hasiera ematea.

Donostia, 2007ko urriaren 15a.—Markel Olano Arrese, diputatu nagusia.

(11080)

(11453)

LABURPENA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2007ko irailaren 11ko bileran hartutako erabakien laburpena, 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 69. eta 72. artikuluetan erabakita-koari jarraituz bestelako xedapen eta ebazpenak argitaratzea alde batera utzi gabe:

— Foru Aldundiaren ordezkariak izendatzea sozietate eta entitateetan.

— Aprobar las Directrices Económicas, las Directrices Técnicas y el calendario de elaboración del Proyecto de Presupuestos de 2008.

— Tomar constancia de la recepción de los trabajos del contrato de Asistencia para la Redacción del Proyecto de construcción de la variante de la carretera N-634 en Eibar. Fase 3.

— Aprobar el Proyecto de Rehabilitación estructural del firme de la Travesía de la antigua GI-131 en Astigarraga.

— Tomar constancia de la recepción de las obras del Proyecto de rehabilitación estructural del firme de la GI-3710 entre los p.k. 0,150 y 6,455.

— Aprobar el Proyecto de construcción de la glorieta de Amillaga en el ramal GI-627-46-1 del enlace de Elgeta en Bergara.

— Tomar constancia de la recepción de las obras del Proyecto de estabilización del talud de desmonte entre los p.k. 0,465 y 0,535 de la GI-632.

— Depositar en la Caja General de Depósitos la cantidad de 360.000,00 €, en concepto de abono a cuenta de la cantidad que resulte en la determinación del justiprecio, por la vía que proceda, de la finca número 73 de la relación de bienes y derechos afectados por el Proyecto de construcción del Ensanche y mejora de la carretera N-121-A desde la glorieta de Laskuain (Behobia) hasta Enderlatsa (Límite con Navarra).

— Autorizar y disponer la cantidad de 131.997,68 € en concepto de liquidación del justiprecio de la finca n.º 24 de la relación de bienes y derechos del Proyecto de construcción de la Variante de la carretera GI-131 en Andoain.

— Aprobar el Proyecto de abastecimiento de agua a Belauntza.

— Prestar aprobación al Convenio de colaboración a suscribir con el Ayuntamiento de Mondragón para realizar un concurso de ideas en relación con el destino futuro de la cantera de San Josepe.

— Prestar aprobación al Convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa, Tolosaldea Garatzen, S.A. y los Ayuntamientos de Aduna, Anoeta, Asteasu, Irura, Villabona y Zizurkil para el seguimiento, dinamización y revisión de los Planes de Acción Local en sus municipios.

— Autorizar la iniciación del expediente de modificación del Proyecto de nuevo aparcamiento y mejora de acceso a Fraisoro en Zizurkil.

Donostia-San Sebastián, a 15 de octubre de 2007.—El diputado general, Markel Olano Arrese.

(11080)

(11453)

EXTRACTO

De los acuerdos adoptados por el Consejo de Diputados de la Excma. Diputación Foral de Gipuzkoa, en sesión del 11 de setiembre de 2007 sin perjuicio de la publicación de otras disposiciones y resoluciones conforme a lo que disponen los artículos 69 y 72 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa:

— Designar representantes de esta Diputación Foral en diversas sociedades y entidades.

— Lehiaketa publikorako deialdia egitea, prozedura irekieren bidez eta ohiko tramitazioa erabiliz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitzetan bi eguzki instalazio fotoboltaiko hornitzeko kontratua esleitzeko (muntatzea eta mantenua barne).

— Obren harrera egin dela adieraztea, Legorretako hondakin uren araztegian hobia egiteko eta biologikoan iragazketa errototamiza eta hedatzaileak jartzeko proiektuari dagokionez.

— Baimena ematea Oria Erdiko Interzeptorea eta adar osagarriak. 2. zatia: Zizurkil-Oria Erdiko araztegia proiektuko lanen kontratuaren aldaketa espedienteari hasiera emateko.

— Baimena ematea 140.140,00 euroko gastua egiteko, Foru Aldundiaren eskumeneko emakidetan bidaiarien errepideko gaueko garraio zerbitzuak 2006ko apirilaren 2tik 2007ko martxoaren 31ra bitartean finantzatzeko diru laguntzak emateko.

— 2007ko diru laguntzen deialdia egitea, Gipuzkoako udalei eszena ikuskarien urteko programazioak egiteko eta eszena ikuskarien nahiz musikaren alorrean feriak, jaialdiak, zikloak eta lehiaketak antolatzeke diru laguntzak emateko, Kultura Sustapeneko eta Hedapeneko Zuzendaritza Nagusiak kudeatutako programen gain.

Donostia, 2007ko urriaren 22a.—Markel Olano Arrese, diputatu nagusia.

(11131)

(11578)

LABURPENA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2007ko irailaren 18ko bileran hartutako erabakien laburpena, 2005eko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 69 eta 72 artikuluetan erabakitakoari jarraituz bestelako xedapen eta ebazpenak argitaratzea alde batera utzi gabe:

— Foru Aldundiaren odezkariek izendatzea sozietate eta entitateetan.

— Elgetako Udalari eskualdatzea «GI-4332 Egoetxeaga baserria» eta «GI-4333 Larragibel baserria» errepideen titularitateak.

— Onartzea Hernanin, GI-3410 errepideko 1,180 k.p.an, Eziagoko biribilgunea egiteko proiektua.

— Jasota uztea Bergarako Urteaga kalean ezponda egonkortzeko II. fasearen Proiektuko obren harrera egin zela.

— Jasota uztea GI-2632 errepideko 30,980-32,300 eta 33,985-34,941 k.p.en arteko zoruaren egitura birgaitzeko Proiektuko obren harrera egin zela.

— Jasota uztea GI-4332 eta GI-4333 errepideetako zoruaren egitura birgaitzeko Proiektuko obren harrera egin zela.

— Jasota uztea sare lokaleko errepideetan seinale horizontalak jartzeko Proiektuko obren harrera egin zela.

Jasota uztea Gabiria, Zerain eta Mutiloko ur horniduraren teleaginteko proiektua idatzi, hornitu, instalatu eta abian jartzeko obren harrera egin zela.

Donostia, 2007ko urriaren 22a.—Markel Olano Arrese, diputatu nagusia.

(11130)

(11579)

— Convocar un concurso público, por el procedimiento abierto y de tramitación ordinaria, para la adjudicación del contrato de suministro (incluyendo montaje y mantenimiento) de dos instalaciones de energía solar fotovoltaica en Diputación.

— Tomar constancia de la recepción de las obras del Proyecto de ejecución de fosa y rototamiz de filtrado y difusores en el biológico en la Edar de Legorreta.

— Autorizar el inicio del expediente de modificación del contrato para la ejecución de las obras del Proyecto de Interceptor del Oria Medio y ramales complementarios. Tramo II. Zizurkil-Edar Oria Medio.

— Autorizar un gasto de 140.140,00 €, para la concesión de ayudas económicas destinadas a la financiación de los servicios nocturnos de transporte de viajeros por carretera en concesiones de competencia de esta Diputación Foral, en el periodo comprendido entre los días 2 de abril de 2006 al 31 de marzo de 2007.

— Efectuar convocatoria para la concesión de subvenciones a ayuntamientos guipuzcoanos para la programación anual de espectáculos escénicos y para la organización de ferias, festivales, ciclos y concursos de las áreas de las artes escénicas y la música con cargo a programas gestionados por la Dirección General de Promoción y Difusión Cultural para el año 2007.

Donostia-San Sebastián, a 22 de octubre de 2007.—El diputado general, Markel Olano Arrese.

(11131)

(11578)

EXTRACTO

De los acuerdos adoptados por el Consejo de Diputados de la Excma. Diputación Foral de Gipuzkoa, en sesión del 18 de setiembre de 2007 sin perjuicio de la publicación de otras disposiciones y resoluciones conforme a lo que disponen los artículos 69 y 72 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa:

— Designar representantes de esta Diputación Foral en diversas Sociedades y Entidades.

— Traspasar al municipio de Elgeta la titularidad de las carreteras GI-4332 «Al caserío Egoetxeaga» y la GI-4333 «Al caserío Larragibel».

— Aprobar el Proyecto de rotonda de Eziago en el p.k. 1,180 de la carretera GI-3410 en Hernani.

— Tomar constancia de la recepción de las obras del Proyecto de estabilización de deslizamiento en la calle Urteaga de Bergara. Fase II.

— Tomar constancia de la recepción de las obras del Proyecto de rehabilitación estructural del firme de la GI-2632 entre los p.k. 30,980-32,300 y p.k. 33,985-34,941.

— Tomar constancia de la recepción de las obras del Proyecto de rehabilitación estructural del firme de las carreteras GI-4332 y GI-4333.

— Tomar constancia de la recepción de las obras del Proyecto señalización horizontal de las carreteras de la red local.

— Tomar constancia de la recepción de la Redacción de proyecto, suministro, instalación y puesta en marcha del telemando del Abastecimiento de Gabiria, Zerain y Mutiloa.

Donostia-San Sebastián, a 22 de octubre de 2007.—El diputado general, Markel Olano Arrese.

(11130)

(11579)

KIROLETAKO ETA KANPO EKINTZAKO DEPARTAMENTUA

Urriaren 19ko 63/2007 FORU AGINDUA, eskola ikasleentzako kirol teknifikazioko unitateei baimena ematea arautzen duena.

1998ko ekainaren 11ko Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legeko 55.4 artikulua xedatzen du ezen, eskola kirolaren arloan, eta araudiz ezarriko diren baldintzak betetzen badira, foru aldundiek baimena emango dutela eskola kiroleko urteko programetan sartuta ez dauden kirol lehiaketak hamabost urte-rik beherako ikasleentzat antolatzeko, ikasle horiek federazioen lehiaketetan parte hartzeko, bai eta zenbait kirol motatan teknifikazio unitateak garatzeko ere.

Aurreko 5/1988 Legea indarrean zegoenean, eta egun indarrean dagoen 14/1998 Legea onartu ondoren ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero onartu ditu foru agindu egokiak, eskola kiroleko programak eta programa horietatik kanpoko jarduerak antolatzeko eta, baita, lehiaketa federatuetan ikasleak parte hartzeko ere baimen emateak arautzeko. Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundia kirolak erakusteko jardueren alderdi batzuk arautu izan ditu aspalditik, bai hastapeneko jarduerak eta bai teknifikatzeak. Jarduera horiek bat datozen 1998ko ekainaren 11ko 14/1998ko Legeak xedatutakoarekin. Nolanahi ere, eskolako ikasleentzako kirol teknifikatze unitateen baimenari buruzko arau batzuk geratzen dira onartzeko unitate horiek Foru Aldundiak urtero onartzen dituen eskola kiroleko programetan sartuta ez daudenean.

Halaber, adierazi behar da azken urte hauetan Kiroletako eta Kanpo Ekintzako Departamentuaren egitekoa izan dela urteko programen eskaintza eskola kiroleko helburu zehatzei egokitzea, gipuzkoar ikasleek kirol asko egiteko aukera izan dezaten, eta ez bakarrik lehiatzera zuzendutakoak. Era berean, Gipuzkoako kirol federazioekin, programen alderdi teknikoaren arduradun direnez, adostu du adin edo kategoría bakoitzean zein jarduera mota egin behar dituzten. Antolaketa arlo horren barruan, eskola kiroleko programetan sartu dira baita ere kirol modalitateak erakusteko jarduerak, nahiz hastapenekoak nahiz teknifikaziokoak. Akordio horietan teknifikazio unitateetat har daitezkeen jarduerak sartu dira.

Nolanahi ere, bi jarduera mota horiek —hastapenekoak eta teknifikaziokoak— ez dute agortzen kirol teknifikazioko unitateen tipologia. Izan ere kirol modalitate eta diziplinak beren artean dituzten hain ezaugarri ezberdinak ikusita, uste dugu, jarduerak ikasleentzako ezaugarri berezietan eta kirol modalitateen egokitzean bada helburua, teknifikazioko unitateen arauak ezin direla horientzat denentzat bat izateko moduan hartu, behar izan batzuk jarri baizik, hala nola: Modalitateetan hasteko adina, adin eta kategoría bakoitzari egokitutako helburuak, edukiak eta jarduerak, etab., eta ondorioz uste dugu zatika heldu behar zaiola, edo antzeko ezaugarriak dituzten modalitate talde edo blokeak hartu behar direla edota, horrela bada, modalitate jakin bat era berezian hartu.

Horrela, hastapeneko jardueren artean ondoko hauek bereiz ditzakegu, besteak beste: Mediora egokitze jarduerak, kirola egiten hasi aurreko jarduerak, kirol hastapen generikokoak, kirol modalitate jakin bateko hastapen berezikoak. Teknifikazioko jardueretan, berriz, bereizi egin behar dira errendimenduan hasteko ibilbideko jarduerak eta talentudunak detektatzeko ibilbideko jarduerak.

DEPARTAMENTO DE DEPORTES Y ACCION EXTERIOR

ORDEN FORAL 63/2007, de 19 de octubre, por la que se regula el régimen de autorización de unidades de tecnificación deportiva para escolares.

El artículo 55.4 de la Ley 14/1998, de 11 de junio, del Deporte del País Vasco, dispone que, siempre que se cumplan los requisitos que se establezcan reglamentariamente, las diputaciones forales autorizarán la organización de competiciones deportivas no contempladas en los programas de deporte escolar para los escolares menores de quince años, la participación de los mismos en competiciones federadas y el desarrollo de unidades de tecnificación en algunas modalidades deportivas.

Durante la vigencia de la anterior Ley 5/1988, y también tras la aprobación de la vigente Ley 14/1998, la Diputación Foral de Gipuzkoa ha venido aprobando anualmente las correspondientes órdenes forales por las que se regulan los programas de deporte escolar y la concesión de autorizaciones para la organización de actividades no contempladas en los mismos y para la participación de los escolares en competiciones federadas. Asimismo, la Diputación Foral de Gipuzkoa viene regulando desde hace tiempo algunos aspectos de las actividades de enseñanza, tanto de iniciación como de tecnificación, actividades que vienen a coincidir con lo que en la Ley 14/1998, de 11 de junio, se denominan unidades de tecnificación. Sin embargo, quedan pendientes de regulación las autorizaciones de las unidades de tecnificación deportiva para los escolares cuando éstas no se encuentran contempladas en los programas anuales de deporte escolar que aprueba la institución foral.

Debe señalarse, igualmente, que durante estos últimos años la actuación del Departamento de Deportes y Acción Exterior ha estado orientada a adaptar la oferta de los programas anuales a los objetivos propios del deporte escolar, poniendo al alcance de los escolares guipuzcoanos la posibilidad de una práctica polideportiva y no orientada exclusivamente a la competición. Asimismo, se ha ido acordando con las diferentes federaciones deportivas guipuzcoanas, responsables de la vertiente técnica de los programas, el tipo de actividades a desarrollar en cada franja de edad o categoría. En estos acuerdos se contemplan las actividades propias de lo que ahora debe entenderse como unidades de tecnificación.

De cualquier modo, estas dos clases de actividades —de iniciación y de tecnificación— no agotan la tipología de posibles unidades de tecnificación deportiva. En efecto, dadas las características tan diferentes que presentan entre sí las diversas modalidades y disciplinas deportivas, se entiende que, si el objetivo es adecuar las actividades a las características propias de los y las escolares y a las de las propias modalidades deportivas, la regulación de las unidades de tecnificación no puede enfocarse de un modo unitario para todas ellas, sino que el establecimiento de requisitos tales como edades de iniciación de las prácticas, objetivos, contenidos y actividades apropiadas para cada edad o categorías, etc., debe abordarse de manera fraccionada, bien por grupos o bloques de modalidades que presentan características afines o bien, en su caso, de manera específica para una modalidad determinada.

Así, dentro de las actividades de iniciación pueden distinguirse, entre otras, las actividades de adaptación al medio, previas al comienzo de la práctica deportiva en sí, la iniciación deportiva genérica, la iniciación específica en un deporte concreto, mientras que dentro de las actividades de tecnificación deben diferenciarse las actividades correspondientes al itinerario de iniciación al rendimiento de las actividades propias del itinerario de detección de talentos.

Bestalde, egiaztatuta dago Gipuzkoan, urteko programetarik kanpo, eskola ikasleentzako kirol teknifikazioko unitateak asko ugaritu direla, oro har, «kirol eskolak» izenarekin. Eskola horien, hastapeneko eta/edo teknifikazioko, ugaritze hori kontrol handirik gabe egin da eta, horregatik, beharrezko da, eskola kiroleko programa bakoitzean dauden aurreikuspen orokorrez gain, erregimen berezi bat ezartzea jarduera horietarako baimena eskatzeko.

Beraz, departamentu honek erabakitze duen erronketako bat teknifikazioko unitateen baimen emateari heltzea da, jarduera horien egiturak jarri eta gauzatzeko orduan zuzen egin daitezkeen gauzak eta eskolako umeen ezaugarri, interes eta beharrak erabat errespetatu daitezkeen. Teknifikazioko unitateek izan behar duten helburuetako bat eskaintza osagarri egokia ematea da, osasun ohiturak sortzeko eta umeen gizentasuna eta egoneko bizimoduaren kontra joateko, baina kontuan edukiz eskaintza osagarri horrek ez duela gehiegizko entrenamendu kaltegarri bihurtu behar eskolako umeentzat.

Helburu eta interes horiek betetzen direla bermatzeko eta Gipuzkoako lurralde historikoan ezarritako eskola kirolaren eremuan disfunczionari ez dadin gertatu, beharrezko da departamentu honek alde aurretik haren funtzionamendua baimentzea.

Euskadiko kirolaren 14/1998 Legean ezarritako eskumen banaketari jarraituz, Autonomia Erkidego osorako erakundeek dagokie «eskola kirolaren oinarriak eta printzipioak, kirol diziplinako araubidea eta lehiaketak finkatzea» (4.2.m artikulua) eta lurralde historikoetako foru organoei «Euskal Autonomia Erkidegoko eskola kirolaren arloko arauak garatzea eta beteaztea, azken kasu honetan udal administrazioarekin elkarlanean» (5.a artikulua).

Kirolaren Euskal Kontseiluak prestatu eta Eusko Jaurlaritzak eta Legebiltzarreko dagokion batzordeak onartutako 2003-2007 bitarteko Kirolaren Euskal Planak arau komun batzuk ezarri ditu hiru lurralde historikoetan eskola kirolaren eredia homogeneizatzeko. Xede horrekin hiru kirol ibilbide ezarri ditu eskola adineko ikasleentzat: Parte hartzekoa, errendimenduan hastekoa eta talentudunak identifikatzekoa. Hiru multzo horietako bakoitzeko teknifikazio unitateek ezaugarri desberdinak dituzte. Hala, parte hartzeko ibilbidean eskola kiroleko urteko programetan kirol hastapeneko jarduerak deitzen direnak egiten dira eta beste bi multzoetan egiten diren jarduerak, berriz, teknifikazio jarduerak deitzen dira urteko programetan.

Hori horrela, Eskola Kirolaren Lurralde Kontseiluaren eta Gipuzkoako Kirolaren Kontseiluaren aldeko iritzia izan ondoren,

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Xedea.

Foru agindu honen helburua da Gipuzkoako lurralde historikoko eskola ikasleentzako kirol teknifikazioko unitateei baimena ematea arautzea.

2. artikulua. Lurralde eremua eta gaiak.

1. Foru agindu honen lurralde eremua eskola ikasleentzat Gipuzkoako lurralde historikoan egindako kirol teknifikazioko unitateak izango dira, horiek antolatzen duten entitate edo pertsonaren helbideari begiratu gabe.

Ahora bien, la realidad viene demostrando que en Gipuzkoa han proliferado, al margen de los programas anuales, numerosas unidades de tecnificación deportiva para escolares, generalmente bajo la denominación de «escuelas deportivas». Dicha proliferación de escuelas, con actividades de iniciación y/o tecnificación, se ha producido con notable descontrol y, por ello, resulta preciso establecer, además de las previsiones generales contenidas en cada programa de deporte escolar, un régimen específico para solicitar la autorización de las mismas.

Por tanto, uno de los retos pendientes de este departamento es abordar la autorización de las unidades de tecnificación, al objeto de que la implantación y el desarrollo de sus estructuras se realice de modo racional y con pleno respeto a las características, intereses y necesidades de los escolares. Uno de los objetivos que deben perseguir las unidades de tecnificación es proporcionar una oferta complementaria idónea para crear hábitos de salud y combatir la obesidad infantil y el sedentarismo, evitando el peligro de que tal oferta complementaria no se convierta en un sobreentrenamiento perjudicial para las y los deportistas en edad escolar.

Para garantizar el cumplimiento de dichos objetivos e intereses y para evitar posibles disfunciones en el modelo de deporte escolar implantado en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, resulta preciso que este departamento autorice previamente su funcionamiento.

Con arreglo a la distribución competencial establecida en la Ley 14/1998, corresponde a las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma «la regulación de las bases y principios generales del deporte escolar, de su régimen disciplinario deportivo y de sus competiciones» (artículo 4.2.m) y a los órganos forales de los territorios históricos «el desarrollo normativo y la ejecución, esta última en coordinación con la Administración municipal, de la normativa de la Comunidad Autónoma en materia de deporte escolar» (artículo 5.a).

El Plan Vasco del Deporte 2003/2007, elaborado por el Consejo Vasco del Deporte y aprobado por el Gobierno Vasco y la comisión correspondiente del Parlamento autonómico, fija unas normas comunes al objeto de garantizar una homogeneización del propio modelo de deporte escolar en los tres territorios históricos, estableciendo tres itinerarios deportivos en edad escolar: De participación, de iniciación al rendimiento y de identificación de talentos. Las unidades de tecnificación correspondientes a cada uno de estos tres itinerarios han de presentar características diferentes. Así, en el itinerario de participación se desarrollan las denominadas en los programas anuales de deporte escolar actividades de iniciación deportiva, en tanto que las actividades desarrolladas en los otros dos itinerarios reciben en dichos programas anuales el nombre de actividades de tecnificación.

En su virtud, previo informe favorable del Consejo Territorial de Deporte Escolar y del Consejo Guipuzcoano del Deporte,

DISPONGO

Artículo 1. Objeto.

Es objeto de la presente orden foral la regulación del régimen de autorización en el Territorio Histórico de Gipuzkoa de las unidades de tecnificación deportiva para escolares.

Artículo 2. Ámbito territorial y material.

1. El ámbito territorial de la presente orden foral viene constituido por las unidades de tecnificación deportiva para escolares a desarrollar en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, con independencia del domicilio de la entidad o persona organizadora de las mismas.

2. Foru agindu honen ondorioetarako bakarrik, kirol teknifikazioko unitatetzat hartuko dira ondoko kirol programak: Publikoak eta pribatuak, irabazteko asmorik gabekoak edo irabazizkoak, iraunkorrak edo urtarokoak, finakoak edo ibiltariak, eskoletako umeei kirol prestakuntza emateko badira. Kirol teknifikazioko unitateak bi motatakoak dira:

a) Kirol modalitateetan hastekoak. Kirol modalitateak erakusteko jarduerak dira, edota kirol irakaskuntzakoak oro har, ez daudenak lotuta lehiaketetan parte hartzearekin, eta irekiak direnak parte hartu nahi duten ikasle guztientzat, bakoitzaren kirol gaitasunagatik mugarik jarri gabe. Inoiz ere ezingo dira jarduera horiek egin, aldez aurretik ezkutuko hautaketaren bat badago.

Hastapeneko unitateen barruan, eta dituzten ezaugarrien arabera, ondoko azpimota hauek bereizten dira: Aldez aurretik medioa menderatzekoak, hastapen generikokoak, kirol modalitate baterako hastapen berezikoak.

b) Teknifikaziokoak. Errendimendurako hastapenaren ibilbidean ikasleen kirol gaitasunak hobetzeko jarduerak dira, kirol lehiaketetan parte hartu gabe eta ikasleak aldez aurretik hautatu ondoren.

3. Foru agindu honetatik kanpo geratzen dira talentudunak hautemateko ibilbideko teknifikazio unitateak, horiek Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen dituelako, haien berezitasuna eta teknifikazioak eskatzen duen esku hartze maila eta egin beharreko jarduera ugariak kontuan edukiz.

4. Foru agindu honetatik kanpo geratzen dira, era berean, goi mailako kiroleko teknifikazio unitateak, Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak direlako.

5. Foru agindu honetan erregulatutako baimen administratiboa eskatzetik salbuetsita geratuko dira hezkuntzako sistemaren barruan egindako eskola ikasleentzako hastapeneko jarduerak, Gipuzkoako Foru Aldundiko eskola kiroleko programetan dauden jarduerak eta erakunde horrek berariaz onartutako jarduerak.

3. artikulua. Aldez aurreko baimenak. Beharkizunak.

1. Foru agindu honen gai diren kirol teknifikazio unitateak egiteko beharrezko da, dena dela, aldez aurretik baimen administratiboa edukitzea, 1998ko ekainaren 11ko Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legeko 4.2.m artikuluan aurreikusitakoaren babesean Eusko Jaurlaritzak ezar ditzakeen beharkizunei jarraituz.

2. Eusko Jaurlaritzak eskola kirolaren oinarriak eta printzipioak onartzen ez dituen bitartean, kirol teknifikazioko unitateak baimentzeko ondoko beharkizun hauek bete behar dira:

a) Unitate horietan egingo den jarduerak adin bakoitzak dituen ezaugarriei egokituta egon behar du.

b) Kirol teknifikazioko unitateak egiteko partehartzaileen adinari egokitutako ekipoak eta materiala eduki behar da.

c) Teknifikazioko unitateek errespetatu behar dute gai horretan eskumena duten gipuzkoar erakundeen artean kirol modalitate horri buruz hitzartuko duten antolaketa.

d) Teknifikazioko unitateek lehiaketako jarduera batzuk ere izan ditzakete, baina hastapen edo teknifikazioko unitateek ezingo dute lehiaketa erregularretan parte hartu beste entitateekin.

2. A los únicos efectos de esta orden foral, se consideran que son unidades de tecnificación deportiva aquellos programas deportivos, públicos o privados, con o sin ánimo de lucro, permanentes o estacionales, fijos o itinerantes, que vayan destinados a la formación deportiva de los escolares. Las unidades de tecnificación deportiva son de dos clases:

a) De iniciación. Son aquellas que desarrollan actividades de enseñanza de las diversas modalidades deportivas, o de enseñanza deportiva general, que no se encuentran ligadas a la participación en competiciones deportivas y van dirigidas a todos y todas las escolares que deseen tomar parte en ellas, sin restricciones derivadas de sus aptitudes para la práctica deportiva. En ningún caso estas actividades podrán conllevar una selección encubierta.

Dentro de estas unidades de iniciación, y en función de las características de las mismas, se podrán distinguir diversas subclases: De dominio previo del medio, de iniciación genérica, de iniciación específica a una modalidad deportiva, etc.

b) De tecnificación. Son aquellas que desarrollan actividades de enseñanza dirigidas a la mejora de las aptitudes deportivas de los y las escolares en el itinerario de la iniciación al rendimiento, que no se encuentran ligadas a la participación en competiciones deportivas y van precedidas de una selección de escolares.

3. Las unidades de tecnificación en el itinerario de identificación de talentos quedan excluidas de esta orden foral por estar reservada su organización a la Diputación Foral de Gipuzkoa, dada su singularidad, así como el nivel de implicación de los y las participantes y el volumen de actividad que exige su realización.

4. Quedan asimismo fuera del ámbito de la presente orden foral las unidades de tecnificación del deporte de alto nivel que son competencia del Gobierno Vasco.

5. Quedarán exoneradas de solicitar la autorización administrativa regulada en esta orden foral las actividades de iniciación con escolares realizadas en el seno del sistema educativo, las actividades incluidas en los programas de deporte escolar de la Diputación Foral y las actividades que hayan sido reconocidas expresamente por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Artículo 3. Autorización previa. Requisitos.

1. Las unidades de tecnificación deportiva objeto de esta orden foral están sujeta en todo caso a autorización administrativa previa conforme a los requisitos que, en su caso, establezca el Gobierno Vasco al amparo de lo previsto en el artículo 4.2.m de la Ley 14/1998, de 11 de junio, del Deporte del País Vasco.

2. Mientras el Gobierno Vasco no apruebe las bases y principios generales del deporte escolar, la autorización de las unidades de tecnificación deportiva estará sujeta al cumplimiento de los siguientes requisitos:

a) Las actividades a desarrollar en dichas unidades deberán adecuarse a las características propias de cada edad.

b) Las unidades de tecnificación deportiva deberán contar con equipos y material adecuados a las edades de los y las participantes.

c) Las unidades de tecnificación deportiva de una modalidad deberán ser respetuosas con la ordenación de dicha modalidad deportiva que se consensúe entre las diversas instituciones gipuzcoanas competentes en la materia.

d) Las unidades de tecnificación deportiva de una modalidad podrán incluir algunas actividades de competición pero las unidades de iniciación o de tecnificación no podrán participar en competiciones regulares con otras entidades.

e) Zuzendaritza teknikoa jardueraren ezaugarriei egokitu-tako kirol titulazioa duen pertsona baten esku gutxienez egongo da. Era beran, pertsona horrek edo entitate antolatzaileak prestakuntza teknikoa duten nahiko lagun izango ditu alboan, bermatuta gera dadin ikasleek kalitate eta segurtasun baldintza egokietan egiten dutela kirol jarduera.

f) Antolatzaileek aseguru poliza bat eduki behar dute jarduerak egiten ari direnean partehartzaileek izan ditzaketan, edota, hala bada, hirugarrenoren batek izan ditzakeen, kalte-galerengatik erantzukizun zibila estaltzeko.

g) Antolatzaileek ikasleak onartzeko irizpide edo beharkizunak ezar ditzakete eta, baita, kirol jarduerak ongi egiteko arau eta jarraibideak eman ere, zeinak era egokian jakitera emango diren. Beharkizun, arau eta jarraibide horien helburua izango da jarduerak baldintza egokietan egiten direla bermatzea. Ikasleak onartzeko beharkizunek ezingo dute inoiz ere antolamendu juridikoak debekatutako diskriminaziorik eragin, eta haien aplikazioak ere ezingo du arbitrario edo umiliagarria izan.

h) Antolatzaileek ikasleen adinari eta gainerako zertzeladei eta kirol modalitatearen ezaugarriei ahalik eta gehien egokituta egin behar dituzte jarduerak.

i) Antolatzaileek hezkuntza sistemak ematen dituen irakaskizunekin eta eskola kirolaren programaren garapenarekin bateragarri izateko moduan egin behar dituzte jarduera horiek. Horretarako, teknifikazio unitateen jarduerari dagokion udalerriko eskola kiroleko egiturak onespina eman beharko die.

j) Antolatzaileek eskola kirolaren arategia eta adingabeen babesari eta neska eta mutilen arteko berdintasunari buruz indarrean dagoen legeria erabat errespetatuz egin behar dituzte jarduerak.

k) Jarduera horiek egiteko kirol instalazioek egokiak izan behar dute eta indarrean dagoen legerian eskatzen diren higieni eta segurtasun baldintzak dituztenak jarduera egiten ari direnean.

4. artikulua. Kirol teknifikazioko unitateen antolatzaileak.

Kirol teknifikazioko unitateen antolatzaileak, foru agindu honen ondorioetarako, ondoko hauek izango dira: Pertsona publiko edo pribatuak, irabazteko asmorik ez dutenak edo badutenak, giza baliabideak eta materialak, bereak edo hitzartuak, jartzen dituztenak jarduera horiek aurrera eramateko eta publikoaren edo administrazioaren aurrean antolatzaile gisa azaltzen direnak.

5. artikulua. Baimen eskaerak aurkeztea.

Baimen eskaerak Gipuzkoako Foru Aldundiko Kiroletako Zuzendaritza Nagusian aurkeztu behar dira jarduera horiek hasi baino gutxienez hiru hilabete lehenago, eskaera aurrerapen gutxiagoarekin egitea zuzitzen duten aparteko inguruabarrak daudenean izan ezik.

6. artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Baimen horiek lortzeko ondoko agiriak aurkeztu behar dira:

a) Behar bezala betetako baimen eskaera.

b) Kirol proiektu teknikoa, helburuen, antolaketaren eta funtzionamenduaren oinarriko lerroak zehaztuz eta aurrera eramán nahi diren kirola erakusteko jardueren programaren ezaugarriak adieraziz, ondoko hauek:

e) La dirección técnica estará a cargo, como mínimo, de una persona con la titulación deportiva adecuada a las características de la actividad de que se trate. Asimismo, la persona o entidad organizadora contará con un número suficiente de personas con la cualificación técnica adecuada a fin de garantizar que los y las escolares desarrollen las actividades en adecuadas condiciones de calidad y seguridad.

f) Los organizadores deberán contar con una póliza de seguro que cubra su responsabilidad civil por los daños y perjuicios que puedan sufrir los y las participantes y cualesquiera terceros en el desarrollo de las actividades.

g) Los organizadores podrán establecer requisitos o criterios de admisión así como normas e instrucciones para el normal desarrollo de las actividades deportivas que se harán públicos convenientemente. Estos requisitos, normas e instrucciones tendrán como objetivo garantizar que las actividades se desarrollen en adecuadas condiciones. En ningún caso los requisitos de admisión podrán constituir discriminaciones prohibidas por el ordenamiento jurídico, ni su aplicación podrá ser arbitraria o vejatoria.

h) Los organizadores deberán desarrollar las actividades en las condiciones más adecuadas a la edad y demás circunstancias de los y las escolares y a las características de la modalidad deportiva.

i) Los organizadores deberán desarrollar las actividades garantizando la compatibilidad de las mismas con las enseñanzas que ofrece el sistema educativo y con el desarrollo del correspondiente programa de deporte escolar. Para ello, las actividades de las unidades de tecnificación deberán obtener la conformidad de la estructura de deporte escolar existente en el municipio de que se trate.

j) Los organizadores deberán desarrollar las actividades con pleno respeto a la normativa de deporte escolar y a la legislación vigente en materia de protección de menores y de igualdad entre mujeres y hombres.

k) Las instalaciones deportivas donde se desarrollen las actividades deberán ser las adecuadas y contar durante el desarrollo de la actividad con las condiciones higiénicas y de seguridad que se exijan en la legislación vigente.

Artículo 4. Organizadores de las unidades de tecnificación deportiva.

Se considera que son organizadores de las unidades de tecnificación deportiva, a los efectos de esta orden foral, aquellas personas, públicas o privadas, con o sin ánimo de lucro, que aportan los recursos humanos y materiales necesarios, propios o concertados, para el desarrollo de las mismas y aparezcan como organizadores ante el público o la Administración.

Artículo 5. Presentación de solicitudes de autorización.

Las solicitudes de autorización deberán presentarse ante la Dirección General de Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa con una antelación mínima de tres meses al comienzo de las actividades, salvo que circunstancias excepcionales justifiquen una solicitud con menor antelación.

Artículo 6. Documentación a presentar.

Quienes deseen obtener las autorizaciones deberán aportar la siguiente documentación:

a) Solicitud de autorización debidamente cumplimentada.

b) Proyecto técnico-deportivo en el que se definan las líneas básicas de sus objetivos, organización y funcionamiento, con exposición de las características del programa de actividades de enseñanza deportiva a desarrollar, que incluirá.

— Helburu, eduki eta modalitateak, ikasleen adin ezaugarri egokituta, erakutsi eta ikasteko etapetan egingo diren jardueren xehetasuna.

- Ikasle partehartzaileen kopurua.
- Ikasleen adinak.
- Medikuntza kontrola.
- Eskatzen zaizkien baldintza ekonomikoak eta bestelakoak.
- Jarduerak egiteko ordutegiak, datak eta lekuak.
- Jardueren iraupena.
- Baimendutako kirol instalazioak.
- Jarduerak kontrolatuko dituzten langile kualifikatuak.
- Langile horien hizkuntza gaitasuna.
- Lehen laguntzak emateko giza baliabideak eta baliabide materialak.
- Aurrekontua.
- Intereseko bestelako datuak.
- Udalerriko kirol egituraren onespenezaren egiaztagiria.

Proiektu horretan zehaztu behar da, era berean, ea lehiaketa jarduerak egingo diren edo ez modalitatea erakusteko, eta zein kirolari hartuko duten parte jarduera horietan (ikasleak, beste batzuk, etab.).

c) Baimen ematea zuzentzen duten arrazoen azalpena eta, batez ere, jarduera horiek Euskadiko Kirolaren 14/1998 Legean, aplikagarri izan daitekeen eskola kirolari buruzko Eusko Jaurlaritzaren dekretuan eta eskola kirolari doakion programan dauden arau, beharkizun eta printzipioei egokituta egotea.

d) Intereseko bestelako datuak.

7. artikulua. *Lurralde federazioen eta udalen txostena.*

1. Prozedura ebazteko, Kirol Zuzendaritza Nagusiak eska diezaieke dagozkion lurralde federazioei eta udalei txostena egin dezatela baimentzea eskatu den jarduerari buruz.

2. Txosten horiek hamabost egunen barruan eman behar dira eta epe horretan egiten ez badira, jarrai daiteke prozedura amaiera arte.

8. artikulua. *Administrazioaren isiltasuna.*

1. Kirol Zuzendaritza nagusian eskaera egin eta zuzendaritza horrek ez badu ebazpenik eman hiru hileko epean, eskatutako baimena emantzat har daiteke.

2. Eskaerak ez baditu aipatu beharkizunak betetzen edota punturen bat argitu edo justifikatu egin behar bada, aurkeztu duenari eskatuko zaio, hamar eguneko epean, akats hori zuzentzeko edo eskatutako agiria ekarri edo argitzeko, eta eskatutakoa bete gabe epe hori iragaten bada, uko egintzat hartuko da, ebazpen egoki baten bidez. Hamar eguneko epe horretan, etenda geratuko da aurreko paragrafoan aipatutako onarpen ekintza hori emateko seinalatutako epea.

— Detalle de los objetivos, contenidos y actividades a realizar en las diferentes etapas de enseñanza-aprendizaje, adecuados a las características propias de las edades de los y las escolares.

- Número de escolares participantes.
- Edades de los escolares.
- Control médico.
- Condiciones económicas y de otra naturaleza exigidas a los mismos.
- Horarios, fechas y lugares de realización.
- Duración de las actividades.
- Instalaciones deportivas autorizadas.
- Personal cualificado que controlará las actividades.
- Capacitación lingüística del mismo.
- Recursos humanos y materiales en materia de primeros auxilios.
- Presupuesto.
- Otros datos de interés.
- Acreditación de la conformidad manifestada por la estructura de deporte escolar del municipio.

Asimismo, en dicho proyecto deberá detallarse si se desarrollarán actividades competicionales orientadas a la enseñanza deportiva y qué deportistas participarán en las mismas (alumnos, terceros, etcétera).

c) Exposición de las razones que justifican la autorización y, muy en particular, la adecuación de las actividades a las normas, requisitos y principios contenidos en la Ley 14/1998, del Deporte del País Vasco, en el decreto del Gobierno Vasco sobre deporte escolar que resulte aplicable y en el correspondiente programa de deporte escolar.

d) Otros datos de interés.

Artículo 7. Informe de las federaciones territoriales y de las entidades locales.

1. A efectos de la resolución del procedimiento, la Dirección General de Deportes podrá solicitar a las federaciones territoriales y a las entidades locales afectadas que emitan un informe sobre las actividades para las que se solicita autorización.

2. Los informes serán evacuados en el plazo de quince días, y de no emitirse en el plazo señalado, se podrá proseguir el procedimiento hasta el final.

Artículo 8. Silencio administrativo.

1. Cuando se formulase solicitud ante la Dirección General de Deportes, y ésta no dictase resolución en el plazo de tres meses, podrá considerarse otorgada la autorización solicitada.

2. Si la solicitud no reuniese los requisitos señalados o alguno de sus extremos necesitase ser aclarado o justificado, se requerirá a quién la hubiese presentado para que, en un plazo de diez días, subsane la falta o acompañe la documentación o aclaración solicitada, transcurrido el cual sin haberlo hecho, se le tendrá por desistido, previa la correspondiente resolución. Durante este plazo de diez días quedará interrumpido el transcurso del señalado en el apartado anterior para la producción del acto presunto estimatorio.

9. artikulua. *Baimenak, lizentziak, komunikazioak eta indarrean dagoen arautegiko gainerako beharkizunak.*

1. Foru agindu honetan araututako baimena lortzek esan nahi du eskudun diren gainerako administrazio publikoek exijitutako baimen, lizentzia, komunikazio eta gainerako beharkizunen kalterik gabe dela.

2. Foru agindu hau 1998ko ekainaren 11ko 14/1998 Legeko 95.1 artikuluan kirol zentroentzat aurreikusirako erregulazioa alde batera utzi gabe ulertu behar da.

10. artikulua. *Eskaeren ebazpena.*

1. Kirol teknifikazioko unitateetarako baimen eskaerak aztertu eta ebaztea Kiroletako zuzendari nagusiari dagokio, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte eta Erakunde Harremanetarako Departamentuko egitura organiko eta funtzionalari buruzko 2004ko martxoaren 30eko 29/2004 Foru Dekretuko 6.2.a) artikuluan ezarritakoari jarraituz.

2. Baimena baldintza batzuk jarritz eman daiteke, eta kasu horretan Kirol Ikuskaritzak egiaztatuko du betetzen diren edo ez.

3. Emateko ebazpenean jasotako baldintzak ez betetzeak hura baliogabetzea ekar dezake.

4. Emandako baimenak, nolana ere, berariazko baimean adierazitako egunean iraungiko dira. Isiltasun positiboaren bidez ematen direnean baimenak, jarduera amaitzen denean amaituko da baimena ere eta, dena dela, hura hasi eta urtebete iragan ondoren.

5. Kirol teknifikazioko unitateekin jarraitu nahi izanez gero, doakion luzapena eskatu behar da. Kasu horretan, egin nahi diren aldaketak bakarrik jakinarazi behar dira.

6. Baimenen onuradunek modalitateak erakusteko antolatuko dituzten kirol jardueri buruzko publizitate edo informazioan agerrarazi behar dituzte baimen horiek.

7. Kirol Zuzendaritza Nagusiari emandako datuetan aldatetaren bat gertatuz gero, alde zurretik organo horri jakinarazi behar zaio.

11. artikulua. *Jarduerak etetea. Ikuskatzea.*

1. Kirol Zuzendaritza Nagusiak jakiten badu kirol teknifikazioko unitateak beharrezko baimenik gabe egiten ari direla, espediente egokia irekitzea alde batera utzi gabe, erabaki dezake jarduera horiek berehala geldiaraztea. Jada baimenduta dauden unitateak ere geldiaraz ditzake baimena emateko ebazpenean edo indarrean dagoen arautegian ezarritako baldintzak ez badira betetzen.

2. Kirol teknifikazioko unitateak ez badira oraindik abian jarri, Kirol Zuzendaritza Nagusiak haiei buruzko informazioa eska dezake eta, baita jarduera debekatu ere, egokitzat jotz gero.

3. Kirol Zuzendaritza Nagusiak, horretarako berariaz gaitutako pertsonen bidez, ikuskaritza lanak egingo ditu foru agindu hau betetzen dela kontrolatzeko.

12. artikulua. *Zigor erregimena.*

Foru agindu honetan dauden xedapenak ez betetzea, 1998ko ekainaren 11ko 14/1998 Legeko 128. artikuluan erabakitakoari jarraituz, arau hauste larria izango da eta han aurreikusitako zigor arauak ezarriko dira.

Artículo 9. *Autorizaciones, licencias, comunicaciones y demás requisitos establecidos en la normativa vigente.*

1. La obtención de la autorización regulada en esta orden foral se entiende sin perjuicio de las autorizaciones, licencias, comunicaciones y demás requisitos que sean exigidos por las distintas administraciones públicas competentes.

